

Bi urteko ibilbidea eta gero, ezinbestekoa izan zaigu autokritika eta gogoeta egitea. Horren ondorioz, **I LOVE ROCK Kultur Elkarteak** edukinez beteriko programa berritu bat aurkezten du.

Gure jatorria izan zen **ROCKUMENTALAK!** ahaztu gabe, ROCK-ari eta askatasun kreatiboan oinarrituriko edozein musika motari lotuta dauden beste arte espresio batzuk bultzatzeko lan egin dugu.

Musikaz gain, Zarautzen dauden kultur gune eta plataforma ezberdinei omenaldia eskaini nahi diegu.

Oinarri ezberdina izan arren, esentzian **I LOVE ROCK**-en helburuekin bat datozen hiru proiektu hedatzera bultzatu gaitu hausnarketa honek.

**ROCKUMENTALAK!**: Zarauzko hirugarren Musika Dokumental Zikloa.

**ZUZENEAN**: kontzertuak Zarauzko hainbat aretoetan.

**PHOTOROCK**: argazki erakusketa PHOTOMUSEUM-en.

Programazio honek musika zaletuen eta artearekiko grina dutenen gosea asetuko duelakoan gaude.

Tras dos años de andadura e inevitable reflexión y autocrítica, **I LOVE ROCK Kultur Elkartea** se presenta con un programa novedoso y cargado de contenidos.

Sin olvidar el ciclo que nos vio nacer, **ROCKUMENTALAK!** , hemos trabajado para potenciar otras expresiones artísticas que tan unidas están a la música ROCK y toda aquella música cuyo origen esté basado en la libertad creativa.

Además de a la música en si, queremos rendir homenaje a aquellos espacios y plataformas culturales que coexisten en nuestro pueblo Zarautz.

Estas reflexiones nos han llevado a desarrollar tres proyectos que aún siendo diferentes, van en paralelo y comulgan con los fines y objetivos de **I LOVE ROCK**.

**ROCKUMENTALAK!** : 3er Ciclo de Cine Documental de Zarautz.

**ZUZENEAN**: Conciertos en diferentes emplazamientos de Zarautz.

**PHOTOROCK**: Exposición fotográfica en PHOTOMUSEUM.

Esperamos que esta programación satisfaga a los aficionados a la cultura musical y sirva de puente para aquellas personas que simplemente tengan inquietud por el arte, independientemente de su formato y origen.

ROCKUMENTALAK!

Z ZUZENEAN

PR PHOTOROCK

# I LOVE ROCK 2010
## PROGRAMAZIOAREN AURKEZPEN FESTA

Z

Putzuzulo  Amets Fabrika 22:00tan 08/05

## MANTISA (Zarautz)



Iosu González (ahotsa eta kitarra), Ganix Illarramendi (ahotsa eta kitarra), Iñigo Azkue (baxua) eta Iñaki Castro (bateria).

Aurki zeresan handia emango duen Zarauztar talde honek, pop-rock eta hard-core melodikoan oinarritzen den beren lehen diska "mantisa" (Gor) aurkeztuko dute.

Presentación del primer disco "mantisa" (Gor) de este grupo de Zarautz con una propuesta basada en pop-rock y hard-core melódico, que en breve dará mucho de que hablar.

## TOM BOYLE (Getxo)



Gloria Para (baxua eta ahotsa), Diego Gulias (bateria eta ahotsa), Xabier Setién (kitarra) eta Sergio Ayuso (kitarra).

Pop soinuan oinarritzen dela esan genezake, baina matize ugariz josita dagoena, momentu batzutan "La Buena Vida", "Yo La Tengo" edo "Los Planetas" gisako taldeak gogora ekartzen gaituena.

Un sonido eminentemente pop, muy rico en cuanto a matices; a veces recordándonos a grupos tan fundamentales como "La Buena Vida", "Yo La Tengo" o "Los Planetas".

- "Interferencias" (Aplasta Tus Gafas De Pasta - 2007). EP
- "Maniobra de Aproximación" (Starsky Records - 2009). LP

## MUNLET (Deusto-Ermua-Mendaro-Bermeo)



Herr Professor (programazioak, kitarra, teklatuak), Ladyfingers (ahotsa, sintetizadorea, theremina), Oskar Alvarez  (bateria), Arkaitz Garai (baxua) eta Sergio Llanos (kitarra).

- "EP1" (Screaminguy - 2003). Mini CD
- "EP2" (Screaminguy - 2004). Mini CD
- "EP3" (Screaminguy - 2005). Mini CD
- "Clinica de Ruidos (Transpop Records - 2007). CD Digipak
- "PONG!" (Bi Batean Diskak - 2009). LP
- "Cañon" (Gaztelupeko Hotsak - 2010). LP

Sekulako aukera gaur egungo zuzeneko interesgarrienetako batez gozatzeko.

Una inmejorable ocasión para poder disfrutar de uno de los mejores directos de la escena musical actual.

"1986. urtean fenomeno berezi bezain eztabaidatsu bat gertatu zen: Heavy Metal-a munduko musika ezagunena bilakatu zen. Edonon ikus zitezkeen deabruaren adarren keinua eta"air guitars"-ak egiten zituzten ile luzedun mutikoak. Baina musika hau ez zen denen gustoko; kritikoek zioten sasimusikoentzat egindako sasimusika zela…Artikulu batean gaitz , nazkagarri eta arriskutsutzat jo zuten,…"

Horrela hasten du Sam Dumn antropologoak "Metal: a Headbanger´s Journey" izeneko filmaren narrazioa. Heavy-aren inguruan gaurdaino egin den azterlanik hoberenetarikoa, alegia.

Lan zorrotza burutzearren, munduari bira ematen dio Sam Dumnek, metal munduko izarrik distiratsuenak elkarrizketatuz: Bruce Dickinson, Dio, Tony Iommi, Dee Snider edo Lemmy besteak beste. Dudarik gabe, Heavy-zale edo interesa duen edonorentzat zirraragarria den kontakizun bat.

**Aurkezpena**: Inaxio Esnaola
Kazetari hau Herri Irratiko Sektor Rock eta Ttan Ttakun irratiko Burdinola irratsaioen zuzendaria da. Entzun! webzinean ere kolaboratzailea da eta Ortots Burdin Hotsak disketxeko arduraduna da.

"En 1986, algo extraño ocurrió: el Heavy Metal se convirtió en la música más popular del mundo, y por todas partes se veía a chicos con el pelo largo haciendo la señal de los cuernos del diablo y tocando air guitars. Pero no a todos les gustaba: los críticos la calificaron de música poco sofisticada para gente poco sofisticada. Un artículo llegó a llamarlo enfermo, repulsivo, horrible y peligroso...". Así comienza el antropólogo Sam Dumn la narración de su película “Metal: a Headbanger's Journey”, posiblemente el mejor trabajo audiovisual de investigación sobre el heavy hecho hasta la fecha y sin duda, uno de los más entretenidos.

Su trabajo riguroso le lleva a dar la vuelta al mundo entrevistando a algunas de las estrellas más rutilantes de la escena metálica como Bruce Dickinson, Dio, Tony Iommi, Dee Snider o Lemmy, en un relato trepidante para cualquier amante del heavy e instructivo para quienes no conozcan esta música.

**Presentación**: Inaxio Esnaola
Este periodista dirige los programas Sektor Rock en Herri Irratia y Burdinola en Ttan Ttakun irratia.
Colabora también en el webzine Entzun! y es responsable de la discográfica Ortots Burdin Hotsak.

## METAL: A HEADBANGER´S JOURNEY

Sam Dumn

2005 | 28/05

94' | 22.00h



"Ezagutzak hitz egiten du; jakinduriak, berriz, entzun." Jimi Hendrix

Aurten 40 urte beteko dira "Rockaren Kitarra" zena desagertu zenetik.

Nork pentsa zezakeen rockaren kitarrajole handienak ez zekiela musika nota bat irakurtzen edo idazten? Egia esan, ez zuen haren beharrik izan, musikarako senari eta estilo berezi bati esker musikari paregabea bilakatu baitzen.

66ko Londres izan zuen eszenatoki aproposa arrakasta lortzeko "Jimi Hendrix Experience" bandarekin. Bizi zelarik grabatutako 3 diskoak eta aktuazio bikain batzuk (Monterrey, Woodstock...) nahikoak izan ziren Seattle-ko kitarrajolea rockaren historiako haundienetarikoa bihurtzeko.

Lau urte igaro ondoren, izar bezala jaiotzen ikusi zuen hiri berbera izan zen haren heriotzaren testigu. Alkoholaren eta somniferoen ondorioz hil zen Samarkand hotelean.

**Aurkezpena**: Joseba Martín
Kazetari bizkaitar honek, Radio Euskadi-ko "La Jungla Sonora" musika irratsaioa zuzentzen eta aurkezten du. Iaz Ondas Saria jaso zuen, ibilbide profesional onenaren kategorian.

"El conocimiento habla, pero la sabiduría escucha." Jimi Hendrix

Este año se cumplen cuarenta de la desaparición de la "Guitarra del Rock".

¿Quién iba a pensar que el mayor guitarrista del rock fuese incapaz de leer o escribir una sola nota musical? No le hacía ninguna falta, su gran intuición y un estilo muy personal le hicieron irrepetible.

El Londres del año 66, sería el mejor escenario para lanzarle al estrellato, junto a la "Jimi Hendrix Experience". Tan sólo tres discos grabados en vida y una serie de actuaciones memorables (Woodstock, Monterrey…), convirtieron al guitarrista de Seattle en uno de los más grandes de la historia del rock.

Londres, la misma ciudad que lo catapultó al éxito vio cómo se apagaba su luz definitivamente cuatro años después. El 18 de Septiembre moría en el hotel Samarkand, después de ingerir alcohol y somníferos.

**Presentación**: Joseba Martin
Periodista vizcaíno que dirige y presenta el programa de música de Radio Euskadi "La Jungla Sonora". Premio Ondas 2009 a la mejor trayectoria profesional.

JIMI
**HENDRIX**

Joe Boyd

1975

98'

04/06

22.00h



## SALDA **BADAGO**

Eriz Zapirain

2001

65´

11/06

22.00h

Batzuentzat musika mugimendua eta besteentzat produktu komertzial bat izan zen **Euskal Rock Radikala (ERR)**-ren eboluzioa aztertzen du dokumental honek, 70. hamarkada bukatzear zegoenean sortu eta 90.ean bereak egin zuen arte.

Kazetari, eszenako jende eta talde desberdinetako partaideekin izandako elkarrizketez baliatzen da zuzendaria mugimendu honetan murgiltzeko.

Diktaduraren amaiera, desadostasun soziala, heroinaren sarrera gaztedian eta ERR-k aktiboki parte hartu zuen erresistentzia eta desobedentzian oinarritutako egoera politikoa kontuan hartzen ditu garai hartako gizarteari begiratu eta musikan izan zuen eragina ezagutarazteko.

**Aurkezpena**: Roberto Moso
“Zarama” musika talde historikoaren aurpegi ezagunena da. Gaur egun, ezagutaraztea eman zuen aktibitate hura berrartzeaz gain, Radio Euskadiko “Caja Negra” irratsaioa aurkezten du.

Este documental hace un recorrido por la evolución del denominado **Rock Radical Vasco (RRV)**, movimiento para unos y producto comercial para otros, no exento de polémica desde sus inicios a finales de los 70 hasta su muerte clínica en los 90.

A través de entrevistas con integrantes de las bandas, periodistas y gente que participó en la escena, Salda Badago profundiza en este fenómeno musical marcado por el fin de la dictadura, el descontento social generalizado, la introducción de la heroína entre la juventud, así como una situación política basada en la resistencia y la desobediencia, en la que el RRV formó parte de forma activa.

**Presentación**: Roberto Moso
El rostro más conocido del histórico combo “Zarama”. Actualmente, además de haber retomado la actividad con la que se dio a conocer, conduce el programa “Caja Negra” en Radio Euskadi.



"One, Two, Three, Four…" punk-rockaren historian The Ramones dugu bandarik handiena. Taldekideen arteko desberdintasunak gaindituz, irudi bateratua ematea lortu zuten: ile luzeak, larruzko jantziak eta abizen berbera taldekide guztientzat. Baina ez zuten zerikusirik Tommy kalkuladoreak edo Johnny kontserbadoreak, Joey konprometituarekin edo Dee Dee kaotikoarekin. Tommy-k berak filmean dioen bezala, The Ramones-en kondariak gaina hartu zien taldea osatzen zuten norbanakoei.

Arrakasta komertzialik lortu ez zuten arren, The Ramones, egungo musika ulertzeko funtsezko taldea bilakatu zen. Taldearen eragina 70. hamarkadatik hasi eta gaurdainoko talde anitzetan nabari daiteke.

Joey 2001ean hil zen; Dee Dee, 2002an; eta Johnny, bi urte beranduago. Sortzaileetatik bizirik dagoen bakarra Tommy bateriajolea da.

**Aurkezpena**: Mikel Insausti
Kritika eta kolaborazio lanak egin ditu irrati, prentsa eta telebistan eta The Covers, The Lusty Men, Big Crunch eta Extras taldeetan parte hartu du. Gaur egun Gara egunkarian zinema kritika lanak egiten ditu.

"One, Two, Three, Four…" The Ramones, la mayor banda de punk-rock de la historia, camuflaron sus conflictos adoptando una imagen uniforme de melenas, chaquetas de cuero y apellido común. Pero nada tenían que ver el calculador Tommy o el ultra conservador Johnny con el comprometido Joey o el caótico Dee Dee. Pero como dice Tommy en la película, la leyenda de los Ramones se impuso sobre sus personas.

A pesar de no conseguir éxito comercial, los Ramones se convirtieron en pieza clave para entender la música contemporánea y su influencia se ve reflejada en innumerables bandas de todos los estilos desde sus inicios en los 70 hasta nuestros tiempos.

Joey murió en el 2001; Dee Dee, en el 2002, y Johnny, en el 2004. El batería Tommy es el único Ramone original que hoy sigue vivo.

**Presentación**: Mikel Insausti
Crítico de cine y colaborador en radio, prensa y televisión e integrante de las bandas The Covers, The Lusty Men, Big Crunch y Extras. Actualmente ejerce la crítica cinematográfica en el diario Gara.

END OF THE CENTURY:
**THE STORY OF THE RAMONES**

Michael Gramaglia

2005 18/06

108' 22.00h



# ELBERETH
(Legazpia)

## Putzuzulo  Amets Fabrika 00:00tan 28/05




Iker Manso (kitarra eta ahotsa), Xabier Urkia (kitarra), Rubén Sánchez (kitarra), Aritz Legorburu (baxua) eta Xabier Etxeberria (bateria).

Urrearen balioa duen metal-a, etorkizunean zeresan handia emango duen talde baten eskutik. Momentuz, beraien kontzertu agenda ikustea besterik ez dago.

Metal de muchos kilates, de la mano de un grupo que dará mucho que hablar en los próximos años. De momento, su agenda de conciertos así lo atestigua.

- Gaueko Ilargia (Ortots - 2007). LP
- Arima Pizturik Dirau (Ortots - 2009). LP

# JON ULECIA & CANTINA BIZARRO
(Iruñea)

## Marina Txiki Taberna 20:00tan 04/06



Jon Ulecia (kitarra eta ahotsa) Daniel Ulecia (kitarra), David Roure (baxua) eta Javi Eguiluz (bateria).

Energiaz beteriko zuzenekoak, soinu garbiekin zein zikinekin, abileziaz manipulatuak, jotzen duten nota bakoitza beraien bizitzako azkena izango bailitzan.

Directos llenos de energía, de sonidos extraordinariamente limpios como sucios, manipulados con enorme habilidad, como si cada nota que tocan fuese la última de sus vidas.

- "Last Night Dream" (Sunthunder Records - 2008). LP

## GRISES
(Zestoa)

Sausalito Taberna 00:00tan 11/06



Eñaut Gaztañaga (ahotsak eta kitarra), Amancay Gaztañaga (koruak), Alejandro Orbegozo (sintetizadoreak), Raúl Olaizola (baxua) eta Antonio Diniz (bateria).

Beraiengan Franz Ferdinand, The Killers, We Are Standard edota Editors gisako taldeen eragina ikus genezake.

En ellos podemos observar influencias de grupos de rabiosa actualidad como Franz Ferdinand, The Killers, We Are Standard o Editors.

- "La Cuarta Pared" (2006). EP
- "Distancias por Recorrer" (2008). EP
- "Grises" (2009). LP
- "Stop-Jump-Play!" (2010). EP

## MANETT
(Deusto-Getxo)

Tarin Taberna 00:00tan 18/06



Diego Rodríguez (kitarra eta ahotsa), Raúl Rodríguez (baxua eta ahotsa) eta Edu Guzmán (bateria).

Hirukote honek maisuki landutako amerikar estiloko rock-a jotzen du. Migala, Will Oldham edota Iron & Wine-n sasoi onenetara igorriko digun musika egiten du Manett-ek, zeinetaz Neil Young handia ere arro egongo litzatekeen.

Ejecutan un rock de tintes americanos, con una madurez ejemplar. Una banda que nos remitirá a los mejores Migala, Will Oldham o Iron & Wine. Música que el mismísimo Neil Young estaría orgulloso de haber influenciado.

- "Manett" (2005). EP
- "S/T" (2009). Demo

# ON **STAGE**

PR

## PHOTOMUSEUM 01/06 - 04/07

### Argazkilaria: J. A. Areta Goñi (Juxe), 1.968, Errenteria

www.juxephotocorner.com || www.flickr.com/photos/juxeargazkiak/



Funts handiz zaindutako dokumentu pertsonal baten aurrean aurkitzen gara. Bertan Rock & Rollaren munduan diharduten estatuko nahiz nazioarteko underground taldeei egindako argazkiak aurkezten dira: eszenatoki aurrean, entsegu-lokaletan edo aire zabaleko aretoetan, besteak beste.

Argazkilaritza prozesu ezberdinak uztartzen ditu artistak hainbat film mota eta hainbat argazki-paper erabilita, neurri ezberdinetakoak betiere, eta denak zuri beltzean. Gaur egun, euskarri bezala paperaz aparte oihala ere ikus dezakegu dokumentu honetan.

"ON STAGE" lan honek 50 erakustalditik gora biltzen ditu Euskal Herrian (Donostia, Bilbo, Gernika, Irun, Bergara, Durango, Iruña, Urretxu, Bermeo, Markina, Zumarraga... esaterako) zein Euskal Herritik kanpo (Madril, Bartzelona, Coruña, Guadalajara, Santander, Benidorm, Ponferrada… kasurako) egindako erakusketetan.



Nos encontramos ante un documento personal y cuidado en el que Juxe nos muestra el mundo del Rock & Roll a través de fotografías de bandas underground tanto nacionales como internacionales sobre escenarios, locales de ensayo y recintos al aire libre.

El artista nos muestra una colección de imágenes en blanco y negro a distintos tamaños, en la que fusiona diferentes procesos fotográficos, utilizando varios tipos de películas y papel. También nos permitirá descubrir nuevas creaciones en las que sustituye el formato papel por tela.

"ON STAGE" recoje material de más de 50 exposiciones celebradas tanto dentro de Euskal Herria (Donostia, Bilbao, Gernika, Irún, Bergara, Durango, Iruña, Urretxu, Bermeo, Markina, Zumarraga), como fuera de ella (Madrid, Barcelona, Coruña, Guadalajara, Santander, Benidorm, Ponferrada, etc...).

**04/06**

**18:00**

Juxek "ON STAGE"-en aurkezpena egingo du. Ondoren "BLUESTOCK" taldeak blues set bat eskeiniko du.
Presentación de la exposición de Juxe. Posteriormente el grupo "BLUESTOCK" ofrecerá un set de blues.

**18/06**

**18:30**

AV jazz group taldeak jazz set bat eskeiniko du PHOTOMUSEUM-en
AV jazz group ofrecerá un jazz set en PHOTOMUSEUM

# KREDITOAK

**Eriz Zapiain:** ederra salda!!

**Debolex:** zuen laguntzagatik.

**J. A. Areta Goñi:** lan bikaina Juxe! Plazer bat...

**Herri Irratia:** eutsi goiari!!

**In Edit:** zuek bait zarate gure referentzia. Rosa! Mila Esker erakutsitakoagatik.

**Michael Gramaglia:** Hey ho, let's go! Thanks a million.

**Modelo Zinema:** keep on shooting!!

**Photomuseum:** gurekin sinisteagatik.

**Putzuzulo Amets Fabrika:** benetako luxua zuekin lan egitea.

**Sausalito, Marina Txiki eta Tarín tabernak:** Keep on Rocking!!

**Zuriñe Zubeldia:** gu aguantatzeagatik.

# BABESLEAK

ZARAUZKO UDALA
KULTURA SAILA

EL DIARIO VASCO

kutxa

# LAGUNAK

Photomuseum

debolex
A freshfilm Production Company

putzuzulo

TARIN

SAUSALITO BAR

MARINATXIKI

Arkupe
TABERNA

# ROCKUMENTALAK!

ZARAUZKO HIRUGARREN MUSIKA DOKUMENTAL ZIKLOA

ZUZENEAN PHOTOROCK

facebook/I LOVE ROCK kultur elkartea

myspace.com/iloverockumentalak